


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**BERGARA 8**



**Egilea eta data: Benito Olasagasti; 1881.**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta txapituladun estalkipe bat dituena. Behe oinean harriz xaflatutako fatxada eta entokatua, bao uztarri irtenak dituena goi oinetan. Kantoiko hormigoizko begiratokia 1955ekoa da. Behe oineko bao bikoitzak jatorrizkoak dira. Proiektu komuna San Martzial 16rekin.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: estalkipeko oina (5. goi oina).
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.